

Guggenheim Bilbao Museoa Leading Culture Destinations 2014 saria jaso du, arkitektura- eta espazio-diseinu onenari

Guggenheim Bilbao Museoa Leading Culture Destinations 2014 saria jaso du, arkitektura- eta espazio-diseinu kategoriakoa, hain zuzen. Sari horiek lehenengo aldiz ematen dira, eta ikusizko arteak kudeatzen dituzten nazioarteko erakundeei eskaintzen zaizkien bakarrak dira.

Hemendik aurrera, sari hauek urtero emango zaizkie nazioarteko kultur erakundeei, eta honako kategoria hauek sarituko dituzte, besteak beste, arte-programazioa, arkitektura, gastronomia- eskaintza, salmentarako gunea eta euskarri digitalen bidezko esperientzia.

Leading Culture Destinations 2014 sariak Londresen eman zituzten, urriaren 10ean, ostiralean. Gala horretan izan ziren munduko kultur erakunde gailenen ordezkariak. Beste lau museo ere saritu zituzten: Londresko Tate Modern, New Yorkeko Museum of Modern Art, Parisko Palais de Tokyo eta Mexiko Hiriko Museo Jumex. Horrez gain, Londres hautatu zuten kultur helmuga onena gisa.

Bilbon, 2014ko urriaren 13an

El Museo Guggenheim Bilbao galardonado con un Premio Leading Culture Destinations 2014 al mejor diseño arquitectónico y espacial

El Museo Guggenheim Bilbao ha obtenido el premio Leading Culture Destinations 2014 en la categoría de arquitectura y diseño espacial. Se trata de los primeros y únicos galardones internacionales que se otorgan a instituciones de todo el mundo dedicadas a las artes visuales.

A partir de esta edición, estos premios distinguirán anualmente a las mejores instituciones culturales internacionales en áreas como su programación artística, su arquitectura, su oferta gastronómica, su espacio comercial o su experiencia digital.

La ceremonia de entrega de estos premios Leading Culture Destinations 2014 tuvo lugar la noche del pasado viernes, 10 de octubre, en Londres, en una gala a la que asistieron representantes de algunas de las instituciones culturales más prestigiosas del mundo. Otros cuatro museos fueron así mismo galardonados en esta edición: la Tate Modern de Londres, el Museo de Arte Moderno de Nueva York, el Palais de Tokyo y el Jumex de México. La ciudad elegida como mejor destino cultural fue Londres.

Bilbao, 13 de octubre, 2014